

# PROBA ESPEZIFIKOA

2020ko PROBA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





### **Azalpenak**

Probaren iraupena: ordubete.  
Erantzun zortzi ariketa hauetako lauri  
(Ariketa bakoitzak 2,5 puntu balio du).

#### **1. Erantzun filosofia presokratikoari buruzko galdera hauei:**

a) "Arje" hitzak hau esan nahi du:

- 1) Hasiara.
- 2) Jatorria.
- 3) Zaharrena, guztiaren abiapuntua.
- 4) Denak dira zuzenak.

b) Egia/Gezurra: "Fisi" hitzak natura esan nahi du, eta pentsalari horientzat natura estatikoa da funtsean.

#### **2. Zerrendatu Platonek aipatzen dituen gibernu modu desberdinak.**

#### **3. Adierazi, erantzuna arrazoituz, ea zuzenak ala okerrak diren Aristotelesi buruzko baieztapen hauek:**

- Esentzien mundu abstraktu eta aldaezinean ardazten du bere interesa.
- Esentziak mundu sentikorretik bereiz existi daitezke

#### **4. Azaldu, modu eskematikoan, San Agustinen antropologiaren ezaugarri nagusiak.**

#### **5. Azaldu ezazu "postulatu" terminoaren esanahia, eta zerrenda itzazu Kant-ek aipatzen dituen arrazoimen praktikoaren postulatuak.**

#### **6. Zuzen erlazionatu Marxengan eragina izan zuten autore eta korronteei buruzko bi datu-zutabe hauek:**

- |               |                        |
|---------------|------------------------|
| • Saint Simon | Anarkismoa             |
| • Feuerbach   | Sozialismo utopikoa    |
| • Adam Smith  | Ezker hegeldarra       |
| • Proudhon    | Liberalismo ekonomikoa |

#### **7. Azaldu ezazu zer adierazten duten Nietzscheren filosofiako bi termino hauek:**

- a) Nihilismoa
- b) Botere-nahia

#### **8. Zerrendatu mugimendu analitikoaren korronte nagusiak eta adieraz ezazu zein diren haien ordezkari nagusiak.**



**EBAZPENA FILOSOFIAREN HISTORIA**

**(2020)**

**1. Erantzuna.**

- a) Denak zuzenak dira. Izan ere, “arje”k hasiera esan nahi du, ooren jatorria. Bistan denez, hasiera edo jatorria denik eta gauzarik zaharrena da, eta hartatik eratuz doa kosmosa edo mundua.
- b) Egia da “fisi” hitzak natura esan nahi duela, baina natura ez da estatikoa, dinamikoa baizik. Beraz, zuzena litzateke esatea “fisi” hitzak natura esan nahi duela eta pentsalari horientzat natura funtsean dinamikoa dela.

**2. Erantzuna.**

Platonek gobernu modu hauek eta hurrenkera honetan adierazten ditu: Aristokrazia, timokrazia, oligarkia, demokrazia eta tirania. Azken laurak —timokrazia, oligarkia, demokrazia eta tirania— estatuaren lau gaixotasun posible lirateke, hau da, egoera perfektuaren —aristokrazioaren— endekapenak.

**3. Erantzuna.**

- **Gezurra.** Inguratzen gaituen mundu sentikor eta ukigarrian ditu begiak iltzatuak Aristotelesek: Rafaelen *Atenasko eskola* margolan famatuan, Platonek, hatzarekin, gorantz seinalatzen du; Aristotelesek, berriz, beherantz. Platonek mundu ideal abstraktuan ardazten du bere interesa. Aristotelesek mundu konkretu eta sentikorrean finkatzen du begirada. Platonen filosofia ideietatik mundu sentikorrera zihoan, zeina mundu idealaren kopia akastun bat baita. Aristotelesek justu alderantziz dihardu: mundu konkretu eta sentikorretik abiatuta, abstraktura iristen da, ideietara.
- **Gezurra.** Gorago adierazitakotik, ondorioztatzen da esentziak ezin direla existitu mundu sentikorretik bereiz. Aristotelesen ustez, gauza baten esentzia ezin da existitu gauza horretatik beretik bereiz.

**4. Erantzuna:**

Hauek lirateke haren antropologiaren ezaugarri nagusiak:

- San Agustinen antropologia platonismoz kutsatua dago: Dualismo antropologikoa: gizakia gorputz hilkor eta lurtar batez baliatzen den arima hilezkor bat da.
- Gizaki orok jatorrizko bekatuaren marka du, Adamek eta Evak kreazioaren jatorrian egindako bekatuarena.
- Giza ariman, hirutasunaren dogmaren antzera, hiru funtzio bereizten dira: a) Arimak ulertzen du (ulermena). b) Arimak nahi du (borondatea). c) Arimak gogoratu egiten du (oroimena).



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2020

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

2020

FILOSOFIAREN HISTORIA

HISTORIA DE LA FILOSOFÍA

- Askatasunari emandako garrantzia. Gizakia, jatorrizko bekatuaren oinordekoa, borondate ahularekin jaiotzen da. Askatasuna bizitza dramatikoa da, fronte bikoitz batek mehatxatzen baitu: Gaizkirantz tiratzen duen jatorrizko bekatua eta ongirantz tiratzen duen Jainkoaren grazia.

### 5. Erantzuna:

Kant-ek matematikatik hartu zuen “postulatu” terminoa. Postulatuak bistakoak ez diren eta frogatu ezin diren proposizioak dira, eta onartu beharrekoak dira, zeren eta, bestela, ezinezkoa bailitzateke edozein baieztapen. Adibidez, Kant-en arabera, askatasunaren existentzia ezin da frogatu, baina nahitaez onartu behar da “betebehar”aren beharkizun gisa, hori baita arrazoimen praktikoaren “a priori”zkoa. Modu sinpleagoan esanda: betebeharrak askatasunaren existentzia eskatzen edo postulatu du. Esaten bada “ikasi egin behar duzu”, esaten da aukera duzulako ikasteko edo ez ikasteko; hau da, aske zara.

Errealitate horiek dira postulatuak; hau da, ez dira bistakoak eta ezin dira frogatu, baina onartu egin behar dira etikaren edo moralaren eskaera gisa. Kant-ek hiru bereizten ditu:

1. **Askatasuna:** “Eginbeharra duzu; beraz, aske zara”. Eginbeharrak, azaldu berri den moduan, berekin dakar askatasunaren existentzia.
2. **Arimaren hilezkortasuna:** Borondateak, bere ekintza moralean, bizitza honetan ezin lor daitekeen xede bat du; beraz, baieztatu beharra dago badela beste bizitza bat non hori posible baita. Puntu horretara iritsita, arimaren hilezkortasuna postulatu beste biderik ez dago.
3. **Munduan, izatea eta izan beharra ez dira identifikatzen: beharrezkoa da, beraz, onartzea Jainkoa dela bi errealitate horiek identifikatzen diren izakia.**

Kant-ek, azkenik, arrazoimen praktikoaren bidez altxatzen du arrazoimen puruarekin eraitsi duen guztia. Unamunok, *Bizitzaren sentimendu tragikoa* obran, honela adierazi zuen: “Kant-ek buruarekin eraisten duena bihotzarekin altxatzen du”. Teoriaren eta praktikaren arteko kontrakotasuna —zeinean, geroago, marxismoak sakonduko baitu— zabalik zegoen jada.

### 6. Erantzuna:

- Saint Simon                      Sozialismo utopikoa
- Feuerbach                        Ezker hegaldarra
- Adam Smith                      Liberalismo ekonomikoa
- Proudhon                         Anarkismo

### 7. Erantzuna:

a) **Nihilismoa:** Latindar jatorriko hitza: “nihil” = ezer ez. Nihilismoa gure mendebal-kulturaren historiaren ondorioa da. Mendebaldeko espirituaren indarra, nekaturik, balio desegoki eta gezurrezkoek agorturik, nihilista bihurtzen da. Jainkoaren heriotzaren ondoren, Mendebaldeko



**FILOSOFIAREN HISTORIA HISTORIA DE LA FILOSOFÍA**

zibilizazioak ordura arte zituen balioak galdu ditu: balio horiek faltsuak ziren, airez betetako globo bat bezala, zulatutakoan ezerezean gelditzen dena. Balio zahar horiek (esklaboen moralak) biziaren beraren ukazioa dira, "ezerezaren borondate"tik baitatoz. Sokrates, zikuta edaten, eta Jesus Nazaretetako, gurutzetik eskegita, biziaren ukazio bera dira.

b) **Botere-nahia:** Berak du, hain zuzen ere, balio zahar horiek suntsitzeko ardura; balio horiek ez dira berez eroriko. Hori da baldintza botere-nahiak beste balio berri batzuk sor ditzan. Bera da supergizakiaren biziarentzako baietza. Botere-nahia sortzaileen boterea da, berdintasun-nahiari kontrajarria, botere-nahia menderatze-nahia baita, indarra, bizi-bultzada... Hots, botere-nahia biziaren sinonimoa da, bizi nahi izatearena: "Izaki bizi bat non ikusi, han aurkitu nuen botere-nahia"...

**8. Erantzuna:**

Pentsamenduaren historian, filosofo askoren interesa piztu du hizkuntzak. XX. mendeko lehen erdiko mugimendu eta korrante filosofikoen nahas-mahasetik, hizkuntzari buruzko kezka analitikoa jalgi zen. Hizkuntzaren filosofia hori praktika bat da teoria bat baino areago: Filosofia analitikoa argitze-jardura bat da, gai bakar bati eragiten diona: hizkuntzari. XX. mendeko mugimendu filosofiko horri mugimendu analitikoa esan ohi zaio, oro har. Mugimendu hori hiru aldi eta korrante gutxi-asko elkarren ondokotan garatu da:

- B. Russellen atomismo logikoa da mugimendu horren abiapuntua, Wittgensteinen lehen aldiarekin batera. Wittgensteinen *Tractatus* obrak, parte batez, haren tesi nagusiei jarraitzen die.
- Jarraipena neopositibismo logikoa da, Vienako Zirkuluko kideek garatua. Hauek dira, besteak beste, haren kide nabarmenenak: Popper eta Carnap.
- Eta mugimenduaren gailurra filosofia analitikoa da, Wittgensteinen bigarren aldiaren eta *Ikerketa filosofikoak* haren bigarren obra nagusiaren ideien eraginpean. Filosofiak funtzio deskribatzailea du: hizkuntzaren erabilerak ulertzen laguntzea. Hizkuntza-jokoak ulertuz ebatzi behar ditu filosofiak problema filosofikoak. Problema filosofiko asko hizkuntzazko gaizki-ulertu linguistikoak dira: "Problema filosofikoak ez dira ebazten, disolbatu egiten dira" hizkuntzaren analisiaren bidez. Ez dago problema filosofikorik, buruhauste linguistikoak baino ez dira: "**Gramatika-tanta batek filosofia-hodei oso bat kondentsatzen du**".

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	1.2
2	2.8
3	3.2
4	4.6



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2020

**FILOSOFIAREN HISTORIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS*

2020

**HISTORIA DE LA FILOSOFÍA**

---

5	7.7
6	8.3
7	9.6
8	10.5